donostiakultura.com

Josu Zabalondo Sagastizabal
BERMEOKO ARRAUN ELKARTEA
Matxikorta kalea z/g
BERMEO

Zabalondo jaun hori:

Bermeo-Urdaibaiko tripulazioak Hondarribia Arraun Elkarteko tripulazioa abordatu zuela eta Kontxako Bandera Estropadako Epaimahaiak 2013ko irailaren 8an erabaki zuen, lehenenik, Bermeo-Urdaibaiko tripulazioa deskalifikatzea eta, bigarrenik, tripulazio arau-hauslea 2013ko irailaren 8an egindako estropadaren sailkapeneko azken postura jaistea. Erabaki horren aurka jarritako helegitearen gainean xehetasun hauek jakinarazi nahi dizkizut:

Kontxako Bandera Estropadako Epaimahaiak hartutako erabakiaren aurka ez dago administrazio-errekurtsoa jartzerik estropada antolatzen duen erakundearen aurrean, hau da, Donostia Kulturaren aurrean.

Kontuan hartu behar da "Kontxako Bandera" Estropada antolatzeko, garatzeko eta egiteko hartu behar diren erabaki guztiak estropada antolatzen duen erakundeari berari, Donostia Kulturari, dagozkiola hartzea.

Horrela, estropadan izena emateko eta parte hartzeko prozesuarekin zerikusia duten antolakuntzako erabakiak Donostia Kulturari dagozkio, eta erabaki horiek Donostia Kulturaren beraren aurrean aurkaratu daitezke; beste era bateko erabakiak —izaera teknikoa edo kirol-izaera dutenak, hala nola diziplina-izaerakoak— ostera, beste organo batzuei dagozkie, esaterako estropadetako epaimahaiari edo Arraunketako Euskal Federakundeari.

Estimado Sr. Zabalondo;

En respuesta al recurso interpuesto contra la Resolución adoptada con fecha 8 de septiembre de 2013 por el Jurado de Regata de la Bandera de La Concha, por la que se resuelve, en primer lugar, descalificar a la tripulación de Bermeo-Urdaibai por abordaje a la tripulación de Hondarribia Arraun Elkartea y, en segundo lugar, relegar a la tripulación infractora al último puesto de la clasificación de la regata celebrada el día 8 de septiembre de 2013, tengo a bien comunicarle cuanto sigue:

La Resolución adoptada por el Jurado de Regata de la Bandera de La Concha no es susceptible de recurso administrativo ante el propio Organismo organizador de la Regata (Donostia Kultura).

Debe tenerse en cuenta que no todas las resoluciones y decisiones que deban adoptarse con motivo de la organización, desarrollo y celebración de la Regata "Bandera de La Concha" corresponden adoptarlas al propio Organismo organizador de la Regata (Donostia Kultura).

Así, mientras que decisiones de naturaleza organizativa relativas al proceso de inscripción y participación en la Regata corresponden adoptarlas a Donostia Kultura y dichas decisiones son susceptibles de ser impugnadas ante la propia Donostia Kultura, otro tipo de decisiones –las de naturaleza técnica o deportiva, así como las de naturaleza disciplinaria- corresponden adoptarlas a órganos como el Jurado de Regata o la Federación Vasca de Remo.

IFK-CIF Q2000541I
10131n II 2013-09

Donostia Kultura
Festak • Fiestas
Konstituzio Plaza, 1 • 20003 Donostia / San Sebastián
tel (0034) 943 481 168 • faxa 943 481 177 • donostiakofestak@donostia.org

Kirol-izaerako erabaki bat —tripulazio bat deskalifikatzea kasu—, Estropadako Epaimahaiak hartua, edo diziplina-zehapen bat —federazioaren lizentzia etetea edo kentzea kasu—, Arraunketako Euskal Federakundeak jarria, ez dira estropadak antolatzen dituen erakundearen aurrean, hots, Donostia Kulturaren aurrean apelatzeko modukoak.

Una decisión deportiva –como es la descalificación de una tripulación- impuesta por el Jurado de Regata o una sanción disciplinaria –como es la suspensión o privación de una licencia federativa- impuesta por la Federación Vasca de Remo, no son susceptibles de ser recurridas ante el propio Organismo organizador de la Regata (Donostia Kultura).

Bermeo-Urdaibaiko traineruak Hondarribikoa abordatu zuela iritzita Estropadako Epaimahaiak hartutako erabakia kirol-erabaki argi eta garbi teknikoa da.

La resolución del Jurado de Regata, consistente en entender que se produjo abordaje por parte de la embarcación de Bermeo-Urdaibai a la de Hondarribia, es una decisión deportiva de carácter eminentemente técnico.

Kontxako Bandera Estropadako Epaimahaia kide anitzeko organo bat da, arbitraje izaera hutsekoa, eginkizuna duena arlo hertsiki teknikoko erabakiak hartzeko prozesua burutzea. Epaimahai horren erabakiak benetako arbitraje-erabakiak dira, arraunketaren arau teknikoak aplikatzearen ondoriozkoak.

El Jurado de Regata de la Bandera de La Concha es un órgano colegiado de naturaleza puramente arbitral, cuya función es culminar un proceso decisorio en el plano estrictamente técnico. Las decisiones de este Jurado constituyen auténticas decisiones arbitrales mediante la aplicación de las reglas técnicas del remo.

Estropadako oinarrien 6.b) atalak interpretazio hori berresten du. Hitzez hitz hau dio:

*Epaimahai horrek estropadetan arau teknikoak eta kirol-arauak betetzen direla zaindu beharko du. Aitzitik, ez da bere eskumenekoa izango kaleen eta txanden zozketa egitea, ezta antzeko beste antolamendu-zeregin batzuk ere.*

Corrobora esta interpretación el apartado 6.b) de las Bases de la Regata, cuyo tenor literal es el siguiente:

*La función de este Jurado consistirá, básicamente, en cuidar que se observen las normas técnicas y deportivas en las regatas, sin que sean de su competencia los actos organizativos como pueden ser el sorteo de calles, tandas, etcétera.*

Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legearen 106.3 artikulutik ondorioztatzen den bezala, Estropadako Epaimahaiaren erabakia ez da hartzen diziplina-ahala erabiliz. Artikuluak hauxe dio:

*Proben edo partiden zuzendaritza-ahalmenaz baliatzea ez da kirol arloko diziplina-ahalmentzat joko, zuzendaritza-ahalmen hori jarduera-epaileei baitagokien kasuan kasuko kirol-motaren arau teknikoak aplikatuz.*

La decisión del Jurado de Regata no se realiza en el ejercicio de una potestad disciplinaria, tal y como se desprende del artículo 106.3 de la Ley 14/1998, de 11 de junio, del Deporte del País Vasco, que señala:

*No se considerará ejercicio de la potestad disciplinaria deportiva la facultad de dirección de las pruebas o encuentros atribuida a los jueces mediante la aplicación de las reglas técnicas de cada modalidad deportiva.*

IFK-CIF Q2000541I
10131n II 2013-09

Donostia Kultura
Festak • Fiestas
Konstituzio Plaza, 1 • 20003 Donostia / San Sebastián
tel (0034) 943 481 168 • faxa 943 481 177 • donostiakofestak@donostia.org

Estropadako Epaimahaiak, zeinak estropadaren zuzendaritza teknikoa egiten baitu, erabaki zuen, bere zuzendaritza-ahalmena erabiliz, Bermeo-Urdaibaiko tripulazioa deskalifikatzea. Deskalifikatzeko erabaki hori arrauketako arau teknikoen aplikazio bat da, eta, beraz, errekurtso bidez berraztergarria ez den balorazio subjektibo bat. Epaile edo arbitroek lehiaketan erabakitako deskalifikazioen izaera ez- diziplinazkoari dagokionez, adierazgarria da Madrilgo Auzitegi Nagusiak 2002ko maiatzaren 7an emandako epai hau:

*"Beste gai bat —baina funtsari dagokiona— da txapelketa batean, jokoaren arau teknikoak aplikatuz, jokalari bat deskalifikatzea diziplina-gai bat den ala ez eta, beraz, Kirol Diziplinako Espainiako Batzordeak baduen ala ez eskumena era horretako erabaki bat baliogabetzeko..... Aurreko horren guztiaren laburpena eta ondorioa da Kirol Diziplinako Espainiako Batzordearen eskuduntzarik eza .......ren erabakia berraztertzeko, diziplinazko gaia ez denez gero".*

Baina horrek ez du esan nahi kirol proba bat zuzentzeko ahalmenaren erabileran hartutako arbitrajezko erabakiak berraztertu ezin direnik.

Lehen aipatutako Euskadiko Kirolaren Legearen 50.2 artikuluak hau xedatzen du: *"Kirol-lehiaketak zuzentzeko ahalmena erabiliz epaile horiek hartutako erabakiak zuzentzat joko dira".* Arbitrajezko erabakien zuzentasunari buruzko presuntzio orokor hori gorabehera, Kirolaren Legearen 50. artikuluko 3. atalean gaikuntza ematen zaie kirol erakundeei (kirol federazioei) epaileen hutsak berraztertzea arautzeko, baldin eta zuzentzeko modukoak badira.

Proba errepikatu behar izan gabe objektiboki zuzendu daitezkeen arbitrajezko akatsak berrazter daitezke soilik, eta, betiere, ez badakarte proba horren berrarbitratze teknikoa. Ezin dira

El Jurado de Regata, que ejerce la dirección técnica de la Regata, acuerda, en ejercicio de su potestad de dirección, la descalificación de la tripulación de Bermeo-Urdaibai. Este acuerdo de descalificación es una aplicación de las reglas técnicas del remo y, en consecuencia, se corresponde con una valoración subjetiva que no es revisable en vía de recurso. Sobre la naturaleza no disciplinaria de las descalificaciones acordadas por los jueces o árbitros en competición, resulta reveladora la Sentencia del Tribunal Superior de Justicia de Madrid de 7 de mayo de 2002:

*"Cuestión distinta -pero que afecta al fondo- es si la descalificación de un jugador en un torneo en aplicación de las reglas técnicas de juego es o no materia disciplinaria y, por tanto, si el Comité Español de Disciplina Deportiva tiene o no competencia para anular una decisión de esta índole..... Resumen y corolario de cuanto antecede es la falta de competencia del Comité Español de Disciplina Deportiva para revisar el Acuerdo de ...... al no ser materia disciplinaria".*

Ahora bien, lo anterior no significa que todas las decisiones arbitrales adoptadas en el ejercicio de la facultad de dirección de una prueba deportiva no puedan ser revisadas.

El artículo 50.2 de la precitada Ley del Deporte del País Vasco dispone que: *"Las decisiones de dichos jueces en el ejercicio de la facultad de dirección de las competiciones deportivas se presumen correctas".* Pese a esta presunción general de corrección de las decisiones arbitrales, el apartado 3° del artículo 50 de la Ley habilita a las organizaciones deportivas (federaciones deportivas) a regular la revisión de aquellos errores arbitrales susceptibles de rectificación.

Solamente son revisables aquellos errores arbitrales que se pueden corregir objetivamente sin necesidad de repetición de la prueba y sin que puedan suponer un rearbitraje técnico de dicha prueba. No

IFK-CIF Q2000541I
10131n II 2013-09

Donostia Kultura
Festak • Fiestas
Konstituzio Plaza, 1 • 20003 Donostia / San Sebastián
tel (0034) 943 481 168 • faxa 943 481 177 • donostiakofestak@donostia.org

donostiakultura.com

berraztergarriak izan gertakarien beste balorazio subjektibo bat diren arbitratze-erabakiak.

Alde horretatik, errekurtso bidean ezin dena da epaitzen hasi bi ontzien arteko arraun-talka abordatzea den edo enbarazu egitea den, edo arraun-talkak kaltea ontzietako bati egin zion edo biei egin zien, Donostia Kulturari berraztertzen hastea ez dagokion erabaki tekniko subjektiboak dira eta.

Horregatik guztiagatik, eta Estropadako Epaimahaiaren erabaki teknikoa berraztergarria ez denez, jarritako errekurtsoa ez da izapidetzeko onartua izan, eta horrela jakinarazten dizut.

Donostia, 2013ko abenduaren 27a.

pueden ser revisables las decisiones arbitrales que suponen una nueva valoración subjetiva de los hechos.

En este sentido, lo que no se puede hacer en vía de recurso es entrar a enjuiciar si el choque de palas entre dos embarcaciones es abordaje o estorbada, o si el choque de palas causó un perjuicio a una de las embarcaciones o a las dos, pues se trata de decisiones técnicas de carácter subjetivo que no corresponde a Donostia Kultura entrar a revisar.

Por todo lo expuesto, y al no ser susceptible de ser revisada la decisión técnica del Jurado de Regata, le comunico la no admisión a trámite del recurso interpuesto.

San Sebastián, a 27 de diciembre de 2013

IFK-CIF Q2000541I
10131n II 2013-09

Amaia Almirall López de Luzuriaga
Zuzendari Kudeatzailea

Donostia Kultura
Festak • Fiestas
Konstituzio Plaza, 1 • 20003 Donostia / San Sebastián
tel (0034) 943 481 168 • faxa 943 481 177 • donostiakofestak@donostia.org